


## Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo dira 2006ko urrian

***Azken hamabi hilabeteetan (2006ko urria, 2005eko urriarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %4,8 gehitu dira.***

2006ko urrian, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 igo da, aurreko hilaren aldean, eta hilabete horretako urte arteko tasa %4,8ra iritsi da, EUSTATEN datuen arabera. Aurreko abenduaren aldean lortutako igoera %5,4koa izan da.

### Urte arteko aldakintza-tasak, 1997-2006



(\*) Gehikuntza urriko urte artekoa da  
Iturria: EUSTAT

2006ko urrian, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,1 igo dira.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute: aurreko hilaren aldean %0,1 igo dira, bai Eraikuntzaren atalean bai Obra Zibileko lehengaien kostuen atalean ere. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: eraikuntzako lehengaien kostuak %4,8 hazi dira, eta obra zibilekoak %3,2.

Urrian prezio-hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan dituzte: energia elektrikoa (%1,5); burdina eta altzairua (%0,9); beira (%0,8); eta zementu artifiziala (%0,6) lehengaiak, besteak beste. Aitzitik, beste lehengai batzuen prezioak

jaitsi egin dira, hala nola karea, igeltsua eta eskaiola (%-0,3); petroliotik eratorritakoak (%-2,2); asfalto-produktuak (%-2,0); eta leherkariak eta gasak (%-0,8) lehengaiak besteak beste.

Sektoreak kontsumitutako lehengai garrantzitsuenen artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan dituzte inflazio-tasarik handienak: energia elektrikoa (%25,8); burdina eta altzairua (%16,6); beira (%9,2); metalezko hoditeria (%8,9); eta leherkariak eta gasak (%5,1). Bestalde, urte arteko prezioetan (2006ko urria, 2005eko urriarekin alderatuta) honako lehengai hauek izan dituzte jaitsierak edota igoera txikiagoak: petroliotik eratorriak (%-9,5); karea, igeltsua eta eskaiola (%-2,2); zeramika-produktuak (%-0,1); harri elaboratua (%0,0); aparatu eta material elektrikoak (%0,0); eta egurra eta kortxoa (%1,0).

### Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2006ko Urria

| GOIBURUAK                  | INDIZEA<br>Oin., 2000= 100 | GEHIKUNTZAREN %           |                                         |                                 |
|----------------------------|----------------------------|---------------------------|-----------------------------------------|---------------------------------|
|                            |                            | Aurreko hilaren<br>aldean | Aurreko urteko<br>hil beraren<br>aldean | Aurreko<br>abenduaren<br>aldean |
| <b>KOSTUA GUZTIRA</b>      | <b>125,8</b>               | <b>0,1</b>                | <b>4,8</b>                              | <b>5,4</b>                      |
| ERAIKINAK                  | 125,9                      | 0,1                       | 5,0                                     | 5,6                             |
| OBRA ZIBILA                | 125,4                      | 0,1                       | 4,0                                     | 4,7                             |
| <b>LEHENGAIEN KOSTUA</b>   | <b>122,8</b>               | <b>0,1</b>                | <b>4,5</b>                              | <b>5,5</b>                      |
| ERAIKINAK                  | 123,1                      | 0,1                       | 4,8                                     | 5,7                             |
| OBRA ZIBILA                | 121,4                      | 0,1                       | 3,2                                     | 4,4                             |
| <b>LAN-ESKUAREN KOSTUA</b> | <b>132,8</b>               | <b>0,0</b>                | <b>5,3</b>                              | <b>5,3</b>                      |

Iturria: EUSTAT

#### Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Datu-bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)